

Gosea

GOSEA KUDEATZEA izango da etorkizunean negozio emankorre-na. Automobilak eta segapotoak egiten dituen aberastuko da, baina Kristina gure izeba zaharra zenak esaten zuen bezala: “Txori guztiak mokodun”. Denok jan behar dugula, alegia.

Hemendik aurrera mundua hankapean izateko arma nagusia gosea izango da. Herri bat estutu nahi dugula? Gose pixka bat eragingo diogu. Herri bat eraitsi nahi dugula? Tori gose gairdosia.

Gaur egun dirua duenak eta etorkizun luzeko inbertsioa egin nahi duenak jakieki begiratzen die.

Landareak berenganatzen ari dira. Geuk eta geuk jango ditugun animaliek jan behar dituzten janariak patentatu egiten dira. Hau da, enpresa edo jende jakin batzuek beretzat hartzen dituzte bizidun batzuk. Gero horien aberastasun genetikoa berena dela diote, eta, antzeko bizidunengan gene horiek ere badaudenez, denborarekin dena berena izango da. Milaka urtetan hobetu eta hautatutako aldaerak (patata, babarruna, piperra...) esku pribatuetara igarotzeko bidea abiatua da. Imajina dezagun: Tolosako babarruna edo Errioxako *tempranillo* mahatsa edo txalaka sagarra edo... jabe batzuen esku.



TIAGO FIOREZE-CC BY SA

Afrika eta Hego Ameriketan lur sail ikaragarriak berenganatzen ari dira zenbait enpresa, munduko merkatuan sartu nahi dutena lantzeko, bertako kulturak gutxietsiz askotan. Argazkian, Brasilgo soja eremu bat.

Baliatu nahi duenak ordaindu egin behar. Eta, dirua izanagatik, ukatu ahalko dute.

Lurrak berenganatzen ari dira. Afrika eta Hego Ameriketan lur sail ikaragarriak erosten ari dira. Lurraren jabegoak dakartzan bitsaren gaineko jarrerak ikusten ditugu, dagoeneko: bertan bizi diren kulturak gutxietsi, haiek lantzen dutena sarraskitu, munduko merkatuan sartu nahi dutena egiten jarri (gaur kafea, bihar soja,

etzi limoia...) eta esklabotza eredu berriak haztatu.

Lehengaiak berenganatzen ari dira. Adibidez, nekazaritzan behar izaten diren zenbait ongarriren guneak: Lurrean urri xamarak dira fosforoa eta magnesioa, eta horien harrobiak pribatizatzen ari dira.

Farmazia industria, kimika industria, bankaren industria... eta nekazaritza industrialia. Hortik dator gosearen demokrazia. Adi! ■

JAKOBA ERREKONDO



Urkamendia

PINUDIAN barrena bidea. Bidea ixtea komeni. Tarteka ireki egin behar. Gereta, ataka edo langa, zerbait jarri behar. Eta hari eusteko baldoa. Burdin hagarekin zuloa egiteko eta zur-mailuarekin jo eta sartzeko lanak hartu beharrean, errazena: aldameneko pinu tukurri lotu.

Ahaztu dira gero itxiturak eta geretak. Baita pinuaren lepoa itozten duen soka ere... Baso urrunetako kontua balitz, gaitz erdi. Kalekalean ere nonahi ikusten dira urkamendiak... ■